# Etxebizitza kolaboratiboak

Hausnarketa teoriko eta bizi-esperientziak.



# Viviendas colaborativas

Reflexiones teóricas y experiencias de vida.

# Hizlariak


_Ana Txurruka .................................................. 03

_Irantzu Ibañez ................................................ 04

_Itsaso Eroa.................................................... 05

_Jone Miner .................................................... 06

_Leire Milikua.................................................. 07

_Luisa Oleaga................................................... 08

_Maider Romay.................................................. 09

_Maria Berzosa................................................. 10

# Ana Txurruka



## Berdintasun teknikaria

Eragile transfeminista aktiboa izan naiz lehengo urtera arte, orain aktibismoa patxadaz hartzen ari naiz. Donostiako Udal Berdintasun Sailean lanean nabil 2009tik.

Feminismoak nire bizitza zeharkatu du eta zeharkatzen du etengabe eta horrek nire bizitza hobeagoa egin du.

Hirigintza ikuspegi feminista batetik batez ere nire lanean hasi nintzen lantzen... dena den konturatu nintzen zein eragin zuzena daukan horrek nire bizitzan eta nire egunerokotasunean.
Hiria egituratzeko eta ulertzeko modu heteropatriarkalak gure bizitzak zehazten ditu eta horren aurrean hausnarketa eta salaketa feminista egiteko beharra zegoela konturatu nintzen. Hirigintza oso esparru zabala izan daiteke eta honen barruan espazio publikoa nola egituratzen den, kaleen izenak sinbolikoki daukaten garrantziaz, etxebizitzen eraikuntzetaz sakontzea oso erakargarria egiten zait.

## Técnica de igualdad

Activista transfeminista hasta el año pasado, ahora me estoy tomando el activismo con calma. Trabajo en el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia desde el 2009. El feminismo ha atravesado mi vida y la atraviesa constantemente, y esto hace que mi vida sea mejor.

Empecé a tratar el urbanismo desde una perspectiva feminista en mi trabajo... y me di cuenta de la relación directa que eso tiene con mi vida y mi cotidianidad.
El sistema heteropatriarcal en el que se estructuran y se entienden las ciudades atraviesa nuestras vidas, y ante esto pensé que era necesario realizar reflexiones y reivindicaciones feministas. El urbanismo puede ser un campo muy amplio y más concretamente, me resultan muy atractivas la forma en la que se estructura el espacio público, la importancia simbólica que tienen los nombres de las calles, construcción y las tipologías de viviendas.

# Irantzu Ibañez



## Arkitekta

Etxebizitza kolaboratiboek bizitza bera partekatzeko espazio komunak bultzatzen dituzte. Baina, partekatzeak bizikidetza unitatean du oinarria, gertukoen ditugunekin (anai-arrebekin, gurasoekin, pisukideekin...) egunerokotasuna elkarbanatzean... zer gertatzen da etxeko atea zeharkatzen dugunean? Bizigai ditugun etxebizitzen barne distribuzioek komuna dena sustatzen al dute?

Aldiri arkitekturak eta abar aldizkari espezializaturako idatzitako artikuluan genion bezala, barne distribuzio normatiboek, gaur egungo sistema kapitalistaren produktu izanik, indibidualtasuna, hierarkizazioa eta desparekotasunak eragin eta azaleratzen dituzte.

Honen inguruko gogoeta egitea proposatzen dut, komuna, kolaboratiboa eta feminista izan daitezkeen barne antolaketen inguruan eztabaidatu eta ideia ezberdinak plazaratuz.

## Arquitecta

Las viviendas colaborativas impulsan espacios comunes para compartir la propia vida. Pero tiene el compartir su base en la unidad de convivencia, en compartir la cotidianidad con las personas que nos son cercanas (hermanas y hermanos, padres, compañeros de piso…)? ¿Qué pasa cuando atravesamos la puerta de casa? ¿Las distribuciones de las viviendas que habitamos fomentan lo común?

Las distribuciones normativas de las viviendas, siendo un producto del sistema capitalista actual, fomentan y perpetúan el individualismo, la jerarquización y las desigualdades, como ya recogimos en la revista especializada Aldiri arkitekturak eta abar.

Propongo una reflexión sobre este tema, compartiendo ideas y debatiendo sobre unas distribuciones y tipologías que sean colaborativas, feministas y a favor de lo común.

# Itsaso Eroa



## Amaraunako biztanlea

Orain dela 15 urte Ekoaldea batera joan nintzen bizitzera. Bertan ikasi nuen 35 helduekin ta 15 umeekin arlo desberdinetan amankomunean bizitzen. Gaur egun Amarauna (Ziordia) proiektuan bizi naiz.

Pertsonen arteko harremanak, gatazkak nola kudeatu, zainketak, zaurgarritasuna, pribilegioak, hierarkiak... gai horiek zentruan jarriz sortzen da feminismo komunitarioa.

## Vecina de Amarauna

Hace 15 años fui a vivir a una Ecoaldea. Allí aprendí a vivir en común con 35 personas adultas y 15 niñas y niños. Hoy en día vivo en el proyecto Amarauna (Ziordia).

Poniendo en el centro temas como las relaciones entre nosotras, cómo gestionar los conflictos, los cuidados, las vulnerabilidades, los privilegios, las jerarquías… se crea el feminismo comunitario.

# Jone Miner



## Arkitekta eta hirigilea

Lehenik, hiriak diseinatu, eraiki edota eraldatu egiten ditugu, eta, ondoren, hiriek gu eraldatzen eta moldatzen gaituzte. Adibidez, mugimendu modernoak hiri eta herrietako eguneroko bizimoduari ez zion garrantzirik eman. Hala, lan produktiboan oinarritu zen eta erabileren segregazioa eta autoaren erabilera sustatu zituen batik bat. Jatorrizko herri eta auzoen ezaugarri asko galdu egin ziren, pertsonen isolamendua ekarriz, espazio publikoak galtzeraino.

Galdutako guztia berreskuratzeko pertsonentzako hiriak diseinatu behar ditugu, bizigarriagoak, osasuntsuagoak eta jasangarriagoak. Azken hamarkadetan ez bezala, gizarte pribatua indartu ordez, gizarte kolektiboa indartzea jarri behar dugu helburutzat.

Helburu hori eskala ezberdinetan landu liteke: eskala txikitik, arkitektura eskalatik, hasi eta hiri-eskalaraino, hain zuzen ere. Hala, etxebizitza kolaboratiboen eredua da arkitektura eskalan landu litekeen aukera bat. Baina hiri-eskalan ere zeregin handia daukagu; espazio publikoek pertsonen topagune izan behar dute eta horretarako, espazio horien ezaugarriak pentsatzeaz gain, eraikinen tipologiak eta erabilerak kokatzeko era ere birplanteatu behar dira, besteak beste.

## Arquitecta y urbanista

Primero, diseñamos, construimos o transformamos ciudades, y después, estas ciudades nos transforman y nos modelan. Por ejemplo, el Movimiento Moderno no le dio importancia a la vida cotidiana. Así, se basó en el trabajo productivo, impulsando la segregación de usos y fomentando el uso del vehículo privado. Se perdieron así muchas de las características de los barrios y pueblos preexistentes, derivando en el aislamiento e individualismo de las personas, hasta perder la vida del espacio público.

Para poder recuperar todo aquello que se perdió, necesitamos diseñar ciudades para las personas, ciudades que sean más habitables, más saludables y sostenibles. Debemos poner como objetivo reforzar la sociedad colectiva, en vez de reforzar la esfera privada, como se ha venido haciendo en las últimas décadas.

Este objetivo se puede trabajar en diferentes escalas: partiendo desde la escala pequeña, la escala de la arquitectura, y llegando hasta la escala de la ciudad. Así, las viviendas colaborativas son una oportunidad a trabajar en la escala de la arquitectura. Pero también en la escala urbana tenemos mucho que hacer; debemos transformar los espacios públicos en espacios para el encuentro de personas, y para ello, además de pensar en las características de dichos espacios, cabe replantear, entre otras cosas, las tipologías de los edificios y el modo en el que colocamos y mezclamos usos en la ciudad.

# Leire Milikua



## Arkitekta

Etxebizitza Kolaboratibo Feminista da izenburua, eta bertako hitz bakoitza baliatuz, 3 kapitulutan banatuko da liburua:

1. Etxebizitza · Zer
2. Kolaboratibo · Nork
3. Feminista · Nola

Ez da entziklopedia bat, ez da definizio itxiz osatzen, eta ez du egi absoluturik. Aitzitik,

irakurlea hausnartzera gonbidatu nahi duen saiakera liburua izango da, hango eta hemengo zertzeladak eskainiko dituena.

Irakurle taldeak hala nahi badu, interaktibotasunean oinarrituta idatziko dugu 4. kapitulua: Gure Etxebizitza Kolaboratibo Feminista.

Eta, hala, irakurraldi bakoitza ezberdina izango da, bakarra.

## Arquitecta

Bajo el título Vivienda Colaborativa feminista, este “libro” se dividirá en tres partes mediante el uso de dichas tres palabras.

1. Vivienda - Qué
2. Colaborativa - Quién
3. Feminista - Cómo

No es una enciclopedia, no está formado por definiciones cerradas, y no tiene verdades absolutas. Por el contrario, será un ensayo que invite a la reflexión de la persona participante, y que ofrecerá pinceladas aquí y allá.
Si el grupo de personas lectoras quiere, interactuaremos para escribir el cuarto capítulo: Nuestra Vivienda Colaborativa Feminista. Y así, cada lectura será diferente, única.

# Luisa Oleaga Muñoz



## EGK-ko etxebizitza teknikari ohia

Denok behar dugu teilatu bat, baina, nolako teilatua izatea nahi dugu? Komunitatean elkar bizitzeko aukerak daude? Zeintzuk? Non? Nire errentaren araberako alokairua izateko aukerarik dut? Eta zeintzuk dira sistemak eta legediak ezarritako mugak?

Zein da gaur egungo gazteen egoera? Enplegu egoerak edozein aukera ahalbidetzen du? Eta ezagunak al dira eredu ezberdinak gazteen artean?

Luisa naiz, durangarra, eta etxebizitzaren gaiarekin emantzipazioaren esperientzia pertsonalaz gain, etxebizitza eskubidea, herri mugimenduko lanketak eta talde borrokak zeharkatzen nau.

Nik seguruenik, zure antzera, erantzunak baino galdera gehiago ditut. Baina elkarrekin galderei erantzuna emateko eta gure teilatua eraikitzeko prest nago. Eta zu?

## Extécnica de vivienda de EGK

Todas necesitamos un techo, pero ¿cómo queremos que sea? ¿Hay opciones de vivir en comunidad? ¿Cuales? ¿Dónde? ¿Tengo opciones de tener una vivienda acorde a mi salario? ¿Cuáles son los límites que establecen el sistema y la legislación vigentes? ¿Cual es la situación de las personas jóvenes hoy en día? ¿Las situaciones laborales que tienen las personas jóvenes posibilitan acceder a diversas opciones de vivienda? ¿Conocemos las personas jóvenes diferentes modelos de vivienda?

Soy Luisa, de Durango, y en relación a la vivienda, aparte de mi experiencia personal de la emancipación, el derecho por la vivienda me atraviesa por la lucha social por el derecho en el ámbito del movimiento popular.

Yo, seguramente, como tú, tengo más preguntas que respuestas. Pero vengo para dar una respuesta común a estas preguntas, para poder construir un techo. ¿Y tú?

# Maider Romay



## Etxegintzako teknikaria

Herri-administrazioek arreta berezia jarri behar dute genero-ikuspegian etxebizitza-politiketan. Etxebizitzari dagokionez, egoera ahulenek, hala nola bakardadeak, irisgarritasun egokirik ezak, guraso bakarreko familiei eusteak edo genero-indarkeriak, batez ere emakumeengan dute eragina.

## Técnica de Etxegintza

Las administraciones públicas deben prestar especial atención a la perspectiva de género en las políticas de vivienda. En relación a la vivienda, las situaciones más vulnerables afectan sobre todo a las mujeres, situaciones como la soledad, la falta de accesibilidad adecuada, el mantenimiento de las familias monoparentales o la violencia de género.

# Maria Berzosa



## La Morada kooperatibako kidea

La Morada elkarbizitza feminista kooperatibako kidea naiz, gehiengoan lesbiana eta pertsona trantsek bultzatutako eta osaturikoa dena eta Bartzelonako Roquetas auzoan kokaturik dagoena. Oraindik proiektu bat izaki, eraikuntza lanak 2022an hastea aurreikusten dugu.

Bizitza eredu feminista, jasangarri, komunitario eta solidario baten sorkuntzan esperimentatzen gabiltza. La Morada bidai bat da, laboratorio bat, amets bat; bizitzako etapa desberdinak sormenezko modu batean eta komunitatean elkarbanatzen ikasteko apostu bat, bide honetan sortuko zaizkigun erronkak gure eginez.

## Miembro de la cooperativa habitacional La Morada

Formo parte de la Cooperativa La Morada, una cooperativa de convivencia feminista impulsada mayoritariamente por lesbianas y personas trans y situada en el barrio de Roquetas en la ciudad de Barcelona. Aún es un proyecto y está previsto comenzar las obras durante el 2022. Estamos experimentando con la creación de un modelo de vida feminista, sostenible, comunitario y solidario. La Morada es un viaje, un laboratorio, un sueño: una apuesta por aprender a compartir las diferentes etapas de la vida de una forma más creativa y comunitaria, asumiendo los retos que este camino nos pone delante.

## _Antolatzaileak

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gazteria

## _Diru-Laguntzaileak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna — EUSKO JAURLARITZA — BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Organismo Autónomo del — GOBIERNO VASCO — DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA